



## GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

### Ingurumen Batzordea

Anoeta 5, Donostia 605 23 46 29

[gmf-ingurumena@kirolak.net](mailto:gmf-ingurumena@kirolak.net)

## MANDOEGIKO PARKE EOLIKOARI ALEGAZIOAK

Igor Aldalur Zendoia jaunak, NAN zenbakia XXXXXXXXXX zenbakidunak, eta Gipuzkoako Mendizale Federazioaren Ingurumen Batzordearen izenean, Mandoegiko parke eolikoaren aurrean hurrengo alegazioak aurkeztu nahi lituzke:

- 1.- Gasteizko parlamentuak Eusko Jaularitzari energia eolikoaren PTS-a berrikusteko proposamena egin dion garai honetan, ez zaigu momentu aproposa iruditzen proiektu bat aurrera eramateko. Beraz edozein proiektu aurrera atera baino lehen PTS berriari itxoin beharko zitzaiola uste dugu.
- 2.- Ingurumen arloko informazioari buruz, 27/2006 legea jarraiki, proiektu honi buruzko informazio maila murrizta izan dela uste dugu. Benetako gizartearen partehartzea bultzatzea nahi bada bide ugari eta aproposagoak landu beharko liratekeela uste dugu (Internet, elkarte interesatuei informazioa zuzenean bidali etab)
- 3.- Proiektuari dagokionez sortu beharko den 13 km-tako pista berriak ingurumenen hainbat arazo sortuko dituela uste dugu eta alternatibak topatzea eskatzen dugu. Proiektuan pista horietatik ibilgailu oso haundi eta zaratatsuak pasako direla ez da kontutan hartu eta ingurumenaren gaineko ebaluaketa zehatza beharko lukeela uste dugu. Bestalde Ingurumenaren gaineko ebaluaketak ez du kontutan hartzen parke barruan ireki beharko litzatekeen pista sarea. Batez ere Mandoegitik urepelerara pasatzeko pisak kezkatzen gaitu.
- 4.- Ebakuazio linea etqa subestazioei dagokionez dena lurpean joan beharko litzatekeela uste dugu. Honek hainbat eragozpen murriztuko lituzke, batez ere, hegaztien gaineko eragina.
- 5.- Parkea eraiki nahi dagoen patrimonio kulturala (mugarriak barne) babestu beharko liratekeela uste dugu, obaek dirauten bitartean hesi baten bidez berauek babestuz.
- 6.- Kontutan hartu behar da haize errotak doazen bidean GR-121 ibilibidea pasatzen dela eta azkenean parkea egiten bada trazadua aldatu beharko litzatekeela.

7.- Obrak dirauten bitartean eta ingurumenaren leheneragotze prozesuan jarraipen talde bat sortzea proposatzen dugu. Bertan parkea egingo duen enpresako kideak, udaletxeak eta gizarte eragileak bilduko lirateke.

Azkenik esan Gipuzkoako Mendizale Federazioa energia berriztagarrien aldekoa dela eta edozein proiekturi buruz hitzegiteko prest dagoela, beti ere gure mendietan sortzen den ingurumenaren gaineko eragina ahal den neurrian murriztuz.

Igor Aldalur Zendoia  
GMF-ko Ingurumen teknikaria